



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-07-03

VIIURTEA 1.744.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Argentinarrak gaztetxoekin aritu ziren atzo, Kultur Etxean. A. IMAZ

Argentinarrak artista talde batek geldialdia egin du Tolosan

TOLOSA Erakusketa jarriko dute GKO arte galerian; bihar euren lana zuzenean ikusteko aukera izango da, kalean ariko baitira 3

Voith Gorostidiko babes ofizialeko etxebizitzak zozketa egin dute

TOLOSA Atzo egin zuten Leidor aretoan; 572 eskatzaile izan ziren, 79 etxebizitzentzat 4



200 lagun inguru bildu ziren manifestazioan. A. IMAZ

Azken atxiloketak salatu dituzte ehunka lagunek

TOLOSA Joseba Agirrebarrena aske utzi dute; atzo egin zuten eskualdeko manifestazioa 4

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Gaztea bazara esnatu!

Gazteei luzatu nahi diet nire keza. Azken urteotan, gazteen artean ez dut inolako interesik ikusten ezer antolatzeke, gauzak lortzeko, gizarzte honetan gertatzen direnen aurka egiteko...eta lokaletan sartuta egon da ez da ezer lortzen. Dena pasatzen uzten dute eta ez dute inolako interesik!!! Esnatu eta espabilatu. Mundu honetan zerbait lortu nahi bada ipurdia mugitu beharra dago eta oso erraza da kexatzea besteek ezer egiten ez dutelako!! Baina zuek ere mugitu behar zarete! Zuen nahiak eta entzun egin behar dira eta aldarrikatu!! Zain egonez gero inoiz ez da etorriko nahi duzuen hori... zuen esku dago!

Erantzunak:

■ Nik uste ez eragiten ez duten gazte hoietak askok, ikasketa bikainak egiten dituztela, aitatxoren diruarekin lokala ordaintzen duten bitartean. Hauek ondo ikasita daude: gaztetan ezer egin ez, karrera on bat ikasi, eta etorkizunean ere ezer egin ez. Azken finean *bizitzan zerbait egin* dutenak ere ez al daude horren esperoan? Alegia: egunen batean, potrojorran lasai bizi ahal izateko esperantzaz? Ba hauek gaztetatik eduki dute hori eta ez dute besterik nahi: neri ez zait hain arraroa iruditzen. oso ondo ulertzen ditut.

Joxelu.

■ Nire ustez lehenengoak arrazoi osoa du. Gaur egungo gazteen artean ez dut etorkizunerako aspiraziorik edo grinik ikusten. Ez dakit benetan zerbait nahi ote duten gaur egungo gazteek. Zer interesatzen zaie? Bai, ezer egin gabe egoteak ez du ezertarako balio, noski.

Gorka.

■ Guztiz bat nator aurretik esan dutenarekin. Nire ustez, lehen beste ambizio batzuk genituen, amets egiten genuen etorkizunaz. Hala ere, uste dut gizartearen aurka egiteko, altxatzeko... gauza horiek egiteko, edozein edadetan ezin dela egin. Gauza guztia bere garaian. Heldua izan behar duzu, eta gauzak ongi ulertu, bestela ez dituzu benetako aldarrikapenak egingo

Ane.**Aparkalekuekin nazkatuta**

Kaixo! nazka nazka eginda nago Tolosan aparkalekuen istoriarekin ateratzen ari diren dirutzarekin. Argi dago beraien lehentasuna ez dela aparkalekuaren arazoa konpontzea baizik eta honen kontura ahal duten xoxak ateratzea, 10 euronaka baldin bada ere, pixkanaka-pixkanaka hori da hori diru erreza ateratzea. Denbora gutxian despistatzen bazara hortxe dezu multa!

Berriz ere emango dut Araba etorbide atzekaldeko aparkaleku adibidea. Nazkatuta nago aparkaleku hori hutsik ikusteaz. Lehen, OTA jarri aurretik beti beterik zegoen eta erdigunera oinez joateko perezik ematen ez zigutenentzat aukera bikaina zen, doaneko leku bakarrenetarikoa baitzen eta arriskurik gabekoa, San Estebaneko aparkalekuaz ez bainaiz fidatzen. Orain OTA jarri dutenetik hutsik dago beti aparkaleku.

Mesedez zuen lana egin ezazue, aparkalekuen arazoa konpondu eta ez honen kontura aprobetxatu, nazkatuta gaude eta. Benetan, lotsik ez duzue, errespetu pixkat fanoz.

Tolosar gaztea.**Clara Urteaga, HITZA****Batxilergoko sari berezia Clara Urteagarentzat**

Bukaera ezinhobea izan du Batxilergo 2ko gure ikasle den Clara Urteagak. Batxilergoa matrikularenkin bukatu ondoren, selektibitatean 9,18ko mediarekin gauditut du eta hori gutxi balitz batxilergoko sari berezia eskuratu du epaimahaia azterketarik onenatarikoen artean hautatu baitu berea 150 ikasleren artean, elitekoak guztiak. Gehiago eska al liteke?

Esforzuak eta saiatzeak merezi duela ezin uka. Besteak beste, Europan zehar hilaibeteko bidaia, hurrengo ikasturtean hilaibeteko hizkuntz ikastaroa doan, AEBetan, Ingalaterran, Alemanian ... edo beste hainbat lekutan aukeratzeko eta baita karrerarako lehen ikasturtea doan ere.

Arazoi bat gehiago gure ikasle ez harro egoteko. Zorionak Clara!
Laskorain Ikastola.

Igerileku honetan ez dago lekurik

Aste honetan sekulako giroa egin duela aprobetxatuz Usabalgo igerilekura joan naiz. Orain sekulako

berdeguneak jarri dituzte eta gurtura egoten da han etzanda eguzkia hartzen. Baina, guztia ez da eguzkia hartzea, eta batez ere, egin berri dituenak bezalako egun beroak egiten dituen bainutxo bat hartzea oso gomendagarria bezain beharrezkoa da. Ba horretara nihoan ni, erabat kixkalita nengola eta, eta hara non ikusten dudana igerilekua toperaino beteta. Han ez zen inor gehiago sartzen. Hau ez da posible. Berri berria, eta dagoeneko txiki geratu al da ba?k.

Maria.**Erantzunak:**

■ Egia da. Ni askotan izaten naiz bertan, eta ezin da lasai bainatu edo igeri egin. Erabat ezinezkoa, eta eguraldi ona egiten duenean are okerrago dago kontua. Galde-rra bat. Egia al da aste honetako egun batean itxi egin beharra izan dutela jende gehiegi zegoelako? Hori esan didate, eta ni aste honetan izan ez naizenez, ez dakit ezer horri buruz ezer. Ba, beste igerileku bat jarri beharko dute, hainbeste bazkiderentzat ez baitago hain lekurik.

Joxe Mari.

■ Ni ere erabat haserretu nintzen lehengoan, igerilekura joan gogo guztiarekin, eta lekurik ez!

Tolosarra.**Txakur kakak nonahi**

Kaletik zoazela nonahi topatzen dituzu txakur kakak. Noski kontu honekin ezin dut udaletxera joan kexatuz. Hori norberari atera behar zaio. Egia da ez dela garai batean bezala, etengabe eskibatzen ibili behar zenuela, baina, hala ere, sekulako amorrazioa ematen du horrelako zerbait topatzen duzue. Kontu pixka bat mesedez!
Ana Mari.

Mikel Garmendia omenduko dute datorren igandean

Orendain » Trontzalaria izandakoaren monolitoan 11:00etan bilduko dira, aurretik Txindokira igoz.

ERREDAKZIOA

Duela orain bi urte Orendaingo Mikel Garmendia trontzalaria eta herri-kirolaria hil egin zen. Iaz bezala, aurten ere bere omenez mendi irteera egingo dute Txindokira datorren igandean, hilaren bostean.

Alde batetik 08:00etan geratu dira Larraizko langan, hauek handik Txindokira joateko. Beste alde batetik, igotzeko asmoa ez dutenak 09:00etan Orendaindik atera daitezke eta bertatik Garmendia-aren omenezko monolitora joan (Txindokiren azpian dago).

Denak 11:00etan elkartuz, monolitoan omenaldi-ekitaldi xume bat egingo diote. Besteak beste bertsoaren bat botako dute. 12:00ak aldera, berriz Oreindaingo bidea hartuko dute baina kasu honetan autobusez. Bertan, Eltxoa elkartearen hamaiketako egingo dute bukatzeko.

TAKek bi ikastaro antolatu ditu uztaila eta abuzturako**ERREDAKZIOA**

TAKek arraun ikastaroak antolatu ditu hiru hamabostalditan: bi uztailan eta bat abuztuan. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian egin daiteke.

H Hilberria**MANUEL ESTEIBAR AZKUE**

(I'xkiña')



Itzurungo ixkinak
olatu bat falta,
gure gogoan
brausta eta brausta

Andoniren koadrila**ZUMAIA**
2009ko uztailearen 3a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Doma eta Fase argentinarren kaleko artea ikusgai gurean

Tolosa » Bost egunez egongo dira eta beren artea erakustez gain, ekimen ezberdinak ere antolatu dituzte.

ENERITZ IRAOLA

Europako kaleko arte galeria garrantzitsuenetan izan ostean, Tolosara ekarri dute beren artea argentinarrek. Doma eta Fase kolektibo artistikoen baitan lan egiten dute. Bost egunetan zehar izango dira hirian eta ez dira geldirik egoteko asmoz etorri; egun hauek beren lana etalari egiteko modua erakusteko baliatu nahi dituzte. Horretarako, gazteei zuzendutako tailer bat egin zuten atzo Tolosako Kultur Etxean. Horretaz gain, uztailearen 31 arte ikusgai izango den erakusketa bat ere antolatu dute.

Doma eta Fase taldea Europan zehar egindako tour batean murgilduta egon dira azken hilabeteetan. Tolosan emango diote amaiera birari eta Berlin eta Koloniako arte galeria garrantzitsuenetan egindako erakusketetako abiapuntu bera izango dute Tolosan ere. *Carne* izena eman diote birari eta hitz horren inguruan sortutako ideia ezberdinak bildu dituzte beren lanetan. Tolosan, GKogalerian

izango da erakusketa eta uztailearen 31ra arte ikusteko aukera izango da. GKO-ko arduradunen iritziak, «ohore bat da kaleko artearen historian hain garrantzitsuak diren taldeetako kideak Tolosara ekartzea».

Argentinarrak Tolosako Kultur Etxean bildu ziren hamabost urteko neska-mutilekin. Beraiek bihurtu ziren artista. Hutsetik hasi, pertsonaia sortu eta honi bizi eman zioten. *Stop motion* teknika erabili zuten hori lortzeko, momentuan egindako animazioak sortuz. Argentinarrak teknika nola erabili erakutsi zieten bertaratu zirenei eta hortik abiatuta gazteak izan ziren irudimenan martxan jarri zutenak.

Bestalde, artisten lana zuzenean ikusteko aukera izango da bihar. Bertako artista batzuekin batera mural bat margotuko baitute kalean.

Artea irteera moduan

Partaide guztiak diseinu grafikoko ikasketak dituzte eta honek duen kutsu komertzialetik irteeteko bide bezala ulertzen dute aurrera daramaten ekimen hau. Tourra egin, gustoko gauza egin, sormena lantzeko aukera dute. Beraiek dioten bezalaxe, «arte gauza orotan aurkitzen baita».



Tolosan dauden Doma eta Fase taldeetako kideak. I. GARCIA



Atzo Kultur Etxeko Gazte Topagunean egindako tailerreko une bat. I. GARCIA

Bearzana frontoia inauguratzeko ekitaldiak egingo dituzte bi egunez

ERREDAKZIOA

Bearzana frontoi berriaren inaugurazioa egingo du Villabonako Udalak. Ekitaldiak bihar eta etzi izango dira, inaugurazio ekitaldia bera igande izanik. Bihar *Herria Bizirik* jaialdia izango da frontoian,

22:30ean, musika eta dantza emaldiak uztartuz. Jaialdian parte hartuko dute hainbat musikari, abeslari eta dantzari: Nerea Barriola, Ana Iparragirre, Oinkari dantza taldea, Bertso Eskola, Lain taldea, Solano musika eskola, Lo-

tzo musika banda, Eresargi Txiki abesbatza eta Eresargi abesbatza.

Etzi izango da inaugurazio ekitaldia, 13:00etan. Aurretik, 09:30etan hasita, Behar-Zana elkarte pilotarien arteko partidak izango dira. Eskuz binakako partidak eta joko garbiko partidak izango dira. Inaugurazio ekitaldian zinta moztu eta agurra dantatu eta gero, afizionatuen arteko eskuz binakako partidak izango da ere.

Txakurren gorotzei buruz, Udalaren bandoa

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak bandoa kalera du txakurren gorotzen inguruan. Bandoak EAEn txakurrak edukitzeari buruzko dekretuan zehaztutako ekartzen du gogora eta bertan esandakoa betearaziko duela dio Udalak. Dekretuak dioenez, «debebatuta dago txakurren gorotza bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har apaindurarako eta/edo

pertsonek pasadizorako den edozein lekutan uztea». Debekuari ez bazaio kasurik egiten, dekretuak zehazten duenez «arau hauste ariena izango da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4.c) artikulua araberara».

Udalak interesatuei dekretua «bete dezatela» agintzen die. Horrela gertatzen ez bada, dagokin zigor-prozedura bideratuko duela azaldu du, «isun egokia ezarritik».



Bearzana frontoi berria Subijana etxearen atzean dago. R. CALVO

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki

hauetara: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikaztegiaren etxebizitza alokairuan, altzariekin. Inte-

resatuek deitu ondoko zenbaki hauetara: 943 65 40 77, 628 69 88 07 edo 676 01 12 60.

■ **Etxebizitza.** Tolosan atikoa alokatzen da, altzariekin, erdialdean. 618 130 081.

Laburrak**Pilota Txapelketan izena emateko aukera zabalik**

ALKIZA ● VIII. Beteranoen Pilota Txapelketa antolatuta dute Alkizan. Parte hartu nahi duenak Elizegi tabernan eman behar du izena. 10 euro ordaindu behar da eta epea hilaren 7an bukatzen da. Bikoteak antolakuntzak egingo ditu, urtero bezala. Norbaitek bikote bezala izena emanez gero, antolakuntzak ikusiko du onartu ala ez. Bikoteak hilaren 8an, 21:00etan, osatuko dira Elizegin eta txapelketa hilaren 12an hasiko da.

Euskal Jaia prestatzen hasteko bilera asteartean

ANOETA ● Aurten ere Anoetan Euskal Jaia antolatuko dute eta urriaren 11n izango da. Ekimena prestatzen hasteko dei egin diete herriko taldeei eta herritar orori asteartean, hilak 7, udaletxean 19:00etan egingo den bilerara.

Hilaren 30a arte epea zaborren tasa ordaintzeko

IBARRA ● Ibarra Udalak herritarrei jakinarazi nahi die hilaren 30era bitartean, 2009. urteari dagoen zaborren ordainagiriak kobratuko dituela. Epe hori igaro ondoren, bide exekutibo kobratuko dira, %20ko gainkarguz. Ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal dira.

Helduentzako bi emanadi eta afaria, Antzerki Astean

TOLOSA ● Amaroako Antzerki Astearen baitan, gaur bi emanaldi izango dira, helduei zuzendutakoak. 23:00etan Kontukantoi taldeak *Bazen norbait...* emanaldia egingo du eta ondoren, 23:30ean, Pablo del Mundillok *Comico de los caminos* taularatuko du. Emanaldien aurretik, afaria antolatuta dute txosnetan. Joan nahi duenak Ogi Berri okindegian eros dezake txarrelak 19 eurotan.


Zozketatu dituzte Voith-Gorostidiko babes ofizialeko 79 etxebizitzak

Tolosa » 200 lagun inguru izan ziren atzo Leidor antzokian zozketa zuzenean jarraitzen.

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidi eremuko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa egin zuten atzo Leidorren. 200 lagun inguru izan ziren zozketa zuzenean jarraitzen. Guztira 79 etxebizitzaren adjudikaziorako, erosketari jabetza erregimenean, lehen zozketa izan zen atzokoa. Bertan, denetara 572 eskatzaileek parte hartu zuten, baina loteria-ontzian 727 bola izan ziren.

Hain justu, zozketa honen beritasunak bideratu du eskatzaile bakoitza baina bola gehiago izatea zozketan. Izan ere, onartutako eskatzaileek zozketatik ematerako garaian bizikidetzaren unitatea nola osatua dagoen kontuan hartu da. Zenbakiak emateko ondorengo irizpideak jarraitu dira: eskatzaile bakoitza zozketatik ematerako garaian bizikidetzaren unitatea nola osatua dagoen kontuan hartu da. Zenbakiak emateko ondorengo irizpideak jarraitu dira: eskatzaile bakoitza zozketatik ematerako garaian bizikidetzaren unitatea nola osatua dagoen kontuan hartu da. Zenbakiak emateko ondorengo irizpideak jarraitu dira: eskatzaile bakoitza zozketatik ematerako garaian bizikidetzaren unitatea nola osatua dagoen kontuan hartu da.



Leidorren atzo egindako zozketaren une bat. E. EZEIZA

peko pertsonak barnean hartzen dituzten bikoteei 3 zenbaki.

Zozketa hiru taldetan egin zen eta horregatik izan ziren Leidorren hiru loteria-ontzi. Lehenengo taldeak mugikortasun urri iraurkorra duten pertsonak hartzen zituen, guztira 12, eta hauentzako 5 etxebizitza zeuden aurreikusita. Bigarrenean 35 urtetik beherako bizikideak, oinarriak onartu ziren garaian, sartzen dira, guztira 392 eta hauentzako 55 etxebizitza zeu-

den aurreikusita. Hirugarrenean kupo orokorrekoak zeuden, guztira 168, eta hauentzako 19 etxebizitza aurreikusita zeuden.

Atzoko zozketan hautatutakoak ez dira izango adjudikatario, harik eta baldintza ekonomikoak eta etxebizitza ez izatearenak betetzen diren ikusteko behin betiko azterketa egin arte. Loteria-ontzi nakoitzean zeuden bolatzko guztiak atara ziren itxaron-zerrenda osatzeko.

Aurrerago bigarren zozketa bat egingo da eta bertan hautatutako eskatzaile bakoitzaren etxebizitza zehatzaren esleipena egingo da, bizikidetzaren unitatea etxebizitzaren azalerari egokitzen dela kontuan hartuz.

Atzo jabetza erregimenean zozketatu ziren 79 etxebizitza. Aurrerago, Eusko Jaurlaritzak gainontzeko 44 etxebizitzak zozketatuko ditu alokairu sozialeko erregimenean.

Ibai Agirrebarrenak eta Jon Goio espetxean jarraitzen dute

Errepresioa » Joseba Agirrebarrena lizartzarra herenegun aske utzi zuten. Atzo Tolosan manifestazioa egin zuten.

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan 12 euskal herritar atxilotu zituzten Lapurdin eta Nafarroa Beheran. Hauen artean bi lizartzar eta tolosar bat aurkitzen ziren: Joseba eta Ibai Agirrebarrena eta Jon Goio. Herenegun iluntzean Joseba Agirrebarrena aske utzi zuten. Honen semeak, Ibai Agirrebarrenak, atzo espetxe-

an jarraitzen zuen, Jon Goio tolosar sarrak bezala. Atxiloteta hauen ondorioz manifestazioak burutu zituzten atzo Baionan, Kanbon eta Tolosan. 200 lagun inguru parte hartu zuten Tolosakoan.

AMMren salaketa

Amnistiaren Aldeko Mugimenduetan (AAM) gogor salatu ditu atxi-

loketak: «Une hauetan Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa espainiar eta frantziar polizia okupatua dagoela salatu nahi dugu. Abertzale mugimenduaren aurka sorgin ehiza eta kontrol soziala izugarri areagotzen ari dira, eta hori erakusten digute burutzen ari diren fitxaketa masiboek eta atxilotetek». Gertaera hauek «frantziar gobernuaren urduritasuna» agerian uzten dutela aipatu dute. «Jakitun dira badutela arazo politiko bat Euskal Herrian, eta hau konpontzeko, Rubalcaba lagun dutela, errepresioa hautatu dute».

X. GARAGARDO FESTA
ORDIZIAKO

UZTAILAK 2,3,4,5
ORDIZIAKO
'Beti Alai'
Pilotalekuan
18:00/00:00

hitza
GOERRIKO
EL DIARIO VASCO



Atzo Tolosan egindako eskualdeko manifestazioan 200 lagun inguru izan ziren. A. IMAZ

Tolosa garaile Gipuzkoako Herri Arteko zesta- punta Txapelketan

Kirola » Kategoria guztietan garaipena lortuta, 3-0ko emaitzarekin irabazi diote zumaiaiko taldeari.

ENERITZ IRAOLA

Pasa den igandean, ekainaren 28an, jokatu ziren zesta-puntako Gipuzkoako Herri Arteko Txapel-

ketako finalak. Beotibar pilotalekuan izan zen Tolosa eta Zumaiaiko taldeak aurrez aurre jarrituen norgehiagoka. Lehia bizia izan zuten garaipena eskuratu ahal izateko guztia eman baitzuten, baina azkenean Tolosak irabazi zuen.

Ez zen bi taldeak elkarren aurka final batean lehiatzen ziren lehen aldia; besteseitxandatan ere, bitalde hauek iritsi baitira finalera. Igandekoa, beraz, elkarren aurka



Beotibar Zesta-Punta elkarteko kideak sariekirin. HITZA

jokatzen zuten zazpigarren finala izan zen.

Kadeteen jubeniletan helduen mailan aritu ziren eskualdekoak eta kategoria guztietan irten ziren garaile. Kadeteen mailan Beñat Lopez eta Antton Telleria izan ziren tolosako ordezkariak eta Zumaiaiko Mikel Alonso eta Ekaitz Osaren aurka 30-6 irabazi zuten. Bestalde jubeniletan, Arkaitz Izagirre eta Xabier Bildarratz tolosarrak Luis Etxabe eta Josu Gurrutxaga zumaiaarren aurka irabazi zuten 35-23ko emaitzarekin. Azkenik, nagusietan Tolosako Josu Trabazos eta Iñaki Rezolak S. Hernandez eta A. Blazquezen aurka garaipena lortu zuten 35-29ko emaitzarekin.

Iazko txapelketan ere Beotibar Zesta-Punta Elkarteko pilotariak izan ziren Herri Arteko Txapelketako irabazleak. Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan jokatu-tako finalean 2-1 eko emaitzarekin.

Ormazabal EITBnet-eko zuzendari izendatu dute

Komunikabideak

Herenegun EITBko administrazio kontseilua egin ostean eman zuten erabakiaren berri.

ERREDAKZIOA

EITBko administrazio kontseilua- ren bilera egin ostean, Euskal Irrati Telebistako zuzendaritza kargu gehiago jakinarazi zituzten herenegun. Kargu horien artean aurki-

tzen da Edurne Ormazabal tolosarra.

Ormazabalek EITBn jarraituko du, beraz, lanean, baina orain EITBnet Interneteko guneko zuzendari gisa ariko da. Urte luzez, Gaztea irratiko koordinatzailea izan da tolosar kazetaria, baina azkeneko hilabeteetan EITBko webguneko kanal tematikoen arduraduna izan da.

Eusko Jaurlaritzaren gobernu berriarekin etorri dira EITBko zuzendaritzako karguen aldaketak.

Paleta Txapelketan izena emateko epea zabalik dagoeneko

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Tolosa CFk antolatuta, Berazubiko pilotalekuan Paleta Txapelketa jokatu dute.

Txapelketa uztailean zehar izango da, eta orain ireki dute izena emateko epea. Hilaren 7ra arte egongo da horretarako aukera. 943 6717 49 edota 656 7192 63 zenbakietara deitu beharko da.

Elkarretaratzera deitu dute, gaur Triangulon

Gizartea » Zu eta Biok enpresako langile batek jasandako eraso salatuta eta segurtasun handiagoa eskatu dute.

ERREDAKZIOA

Gaur arratsaldeko 18:00etan elkarretaratzera deitu dute Triangulo plazan Zu eta Biok enpresako kideek. Elkarretaratze honekin ekainaren 21ean, beren lankide ba-

tek jasandako eraso salatuta nahi izan dute. «Libreki mugitzeko eskubidea dugulako, beldurrik gabe bizi nahi dugulako, guretzat eta gure ingurukoentzat segurtasuna nahi dugulako» egin dute deialdia.

Ekainaren 21ean, igandea, gertatu zen eraso. Zu eta Biok enpresako langilea Iurreamendiko egoitzara lanera zioala gizonzko barette eraso zuenean. Lankideek elkartasuna adierazi eta horrelako eraso gehiagorik egon ez dadin zaintza handiagoa eskatu dute.



Urtebete pasa da askatu behar zutenetik

POLITIKA » Atzo bete zen urtebete Lizardi elkarteko kide den Pello Odrioz tolosarrak aske egon behar zutenetik. «Lege bidegabe batek 365 egunez luzatu dio kondena, 20 urte baino gehiago barruan eman

ondoren», adierazi dute elkarteko kideek. Hala, bere egoera salatzeko, ohiko moduan, elkarretaratzea egin zuten atzo, Plaza Zaharrean Pello Lizardira zioten pankartekin. N. URIBIZU



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK



Ganbaran
Ricardo Ugarte
ITSAS-BURNI
Uztailaren 1etik irailaren 5era



Hondatu gabe bizi

Erakustaretoan
Pello Irazu
Hondatu gabe bizi
Uztailaren 2tik irailaren 26era

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igandea eta jaiegunetan itxita
Bisitaldi gidatuak: kmk@komazk.com
Tel. 943 112 756 / 667 346 025



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua

Alegiako festetan haurren herri bazkaria antolatu dute hilaren 17an

ERREDAKZIOA

Alegian, hilaren 17ko herri afariaren gain, Jai Batzordeak umeentzako herri bazkaria ere antolatu du, 14:00etan izanik herriko plazan. Honako menua izango da: makarroiak tomatearekin eta izozkia, 2 euroan. Bazkaria 6 eta 14 urte bitartekoentzat izango da eta izen-ematea Kultur Etxean bertan egin behar da hilaren 11 baino lehen.

Gauetan, berriz, afaria izango da. Aurten, txekor jatea eta menu begetarianoa izango dute. Afarirako txartelak hilaren 12ra arte egongo dira salgai. 20 euroan salduko dira Etxeberria, Jubilatua, Eizmendi, Kafea eta Kurpil tabernetan.

Honez gain, jai batzordeak patata-tortilla lehiaketa antolatu du hilaren 16an plazan. Aurten izen-ematea bakarkakoa edo binakakoa izango da. Honetarako zerrendak daude hilaren 11ra arte jabilatuenean, Etxeberria eta Kultur Etxean. «Osagaiak jai batzordeak erabakiko ditu».

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzarain autob. 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolagiri: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

XX. Joxean Tolosa Txapelketa pilota eskolen artekoa izango da aurten

Amezketak » Bihar izango dira lehen partidak Andoain eta Lazkaoren artean hiru mailatan; 22:00etan hasiko dira.

NEREA URBIZU

Iritsi da uda eta udarekin batera hogeigarren urtez, Amezketako Joxean Tolosa Pilota Txapelketa. Dagoeneko 20 urte igaro dira lehenengo aldiz antolatu zutenetik eta beti bezain indartsu aurkeztu dute aurten ere Zazpi-Iturri pilota eskolakok. Lehenengo norgehiogak bihar izango dira 22:00etan, Andoain eta Lazkaoren artean.

Aurtengo txapelketan nobedade garrantzitsu bat egin dute: ez dituzte zuzenean pilotariak gonbidatu, klubak edo pilota eskolak baizik. Luxuzko klubak ariko dira Amezketan, guztira 24. Nafarroatik zazpi, Iparraldetik bat (Panpi Laduxek bideratzen duena), Gipuzkoako 13 eta Arabako bi. «Bizkaitarrak ere gonbidatu ditugu baina ezin izango dute parte hartu, askok abuztuan zehar ixten dute-lako». Argi dagoena da, finala oso irekia izango dela, askok daukatala txapelketa irabazteko aukera.

Joko sistema berria

Horrez gain, joko sistema ere aldatu dute: orain arte ligaxkan jokatzen zuten pilotariak baina aurten irabazten duenak aurrera egingo du, beste txapelketatik kanpo geldituz. «Herriarteko Txapelketa koaren berdina egingo dugu: bi partida irabazten dituen herriak edo klubak aurrera egingo du».



Ikusmina sortzen du Amezketako pilota txapelketak: irudian, iazko nagusien arteko finalerdian. A. OTEZABAL

Finala irailaren 20an izango da eta bitarte horretan asteburuko partidak izango dira Larunari pilotalekuan, festen garaian izan ezik (abuztuak 22, 23). Dena dela, egutegiaren arabera joango dira zehazten asteak pasatzen doazen heinean. Momentuz, asteburu honetan bihar bakarrik izango dira norgehiogak, besteak beste, gaur Elgetako finalak jokatuko baitira. Baina asteburu pare bat barru, ostiralez eta larunbat arratsaldez ere jokatuko dute. Momentuz biharkoa; ez da hasteko era txarra.

Zazpi-Iturri beharrean, Amezketak eta Lizartza

Beti bezala, buruz buruko txapelketa honetan 18ra jokatzen dute eta ez 22ra, kadeteen, gazteen eta nagusien mailan. Aurten, beraz, egun berean eskola bereko hiru

mailako pilotariak ariko dira. Asteburu honetan, horregatik, Lazkaoko hiru ariko dira Andoaingo beste hiruren kontra.

Aurten Amezketak taldea eratu du, noski, baina ez Zazpi-Iturri izenarekin, Amezketak izenarekin baizik. «Lizartzako jokalaririk batzuk aritzen dira hemen eta aurten bere herriko taldea eratu dute: Lizartza: hori bai final polita izango zela, Amezketak eta Lizartza».

Baina arestian esan bezala, finala jokatu dezaketenean klubak asko dira: «Berria Txapelketako irabazleak eta azpitxapelkunak (Aurrea-Saiaz eta Irurtzun), Herriarte-koan bi onenak (Hernani eta Bergara), Arbizu, Espainiako Txapelketa oso ondo aritzen den Hoberena taldea ere dago... Finala edozein dela, zaila izango da iriste hutsa bakarrik».

» TXAPELKETAZ

■ **Izena.** XX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa.

■ **Lekua.** Amezketako frontoian.

■ **Ordua.** Larunbero 22:00etan.

■ **Joko sistema.** Kanporaketa.

■ **Mailak.** Buruz burukoan kadeteak, gazteak eta nagusiak.

■ **Finalak.** Irailaren 20ean.

Ariko diren klubak

■ **Gipuzkoa.** Amezketak, Lizartza, Aurrera-Saiaz, Lazkao, Bergara, Hernani, Arrasate, Azkoitia, Antiguoa, Usurbil, Andoain, Azpeitia eta Añorga.

■ **Nafarroa.** Irurtzun, Hoberena, Erreka, Txaruta, Olazti, Burlata eta Arbizu.

■ **Iparralde.** Hendaia.

■ **Araba.** Zaramaga eta Txukun Lakua.

'Zerbitzu Etxea' egingo dute urtebetean

Abaltzisketa » Foru Aldundiaren laguntzarekin herritarrek erabiltzeko gunea izango dute frontoiaren ondoan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Landa ingurunearen garapeneko sailak jakitera eman duenez, diputatuaren kontseiluak Landagipuzkoa 32 programako Abaltzisketako inbertsio plana onartu du aste honetan. Plan honek eraikin balioanizduna eraikitzea aurreikusten du, 999.343 euroko inbertsioarekin.

Guztira 39 proiektu dira Landagipuzkoa 32 programan daudenak, eta horietarako Foru Aldundiak 19.500.000 euro bideratu ditu. Abaltzisketako Zerbitzu-

etxe hau gauzatzen den lehena izango da.

Dagoeneko hasi dira Landagipuzkoa 32 programako udal azpiegitura balioanizdunak eraikitzeko inbertsioak gauzatzen. Inbertsio horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza jasotzen dute.

Kontzeptu horren barruan biltzen dira Udalen iritziz beraian udalerrien garapenerako lehentasunekoak diren eta, inbertsioaren kudeaketa konplexutasunagatik, beraiek zuzenean nekez gauza ditzaketenean azpiegiturak inbertsioak. Esaterako, gizarte alorrekoak, kulturalek, edo osasunarekin lotutakoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzan, lan-tzaketa tekniko, juridiko eta administratiboko alderdiak ere hartzen ditu. Horrenbestez, Etorlurrek,

Gipuzkoako Lurra prestatuko ditu udalerriri onuradun bakoitzaren inbertsio planak eta berak gauzatuko ditu plan horietan aurreikusitako inbertsioak.

Balioanizteko zentroaren kokalekua

Zerbitzu-etxe hau Abaltzisketa eta Amezketako arteko errepidearen ondoan eraikiko dute, gaur egun pilotalekuaren apartalekuak hartzen duen lekuan, hain juxtu. Eraikinean, gazteentzako eta adinekoentzako lokalak moldatu nahi dira. Espazio horietan, besteak beste, teknologia berriak erabili ahal izango dira. Halaber, lokal batzuk Udalaren bulegoak erabiltzeko modukoak izango dira, eta dirudienez, komun publikoak ere jarriko dituzte.

Behar horiek guztiak kontuan

hartuta, Abaltzisketako Udalak ideia lehiaketa bat jarri zuen abian 2008ko apirilean. Aurkeztu zirenen arteko proiektu bat onartu dute: *Txindokiren begirada*, Mozas eta Aguirre arkitektoena, hain zuzen ere.

«Urte batean eginda»

«Diseinua da proiektu horren ezaugarri nagusietako bat», eta eraikinetik herriko bi mendi nagusiak ikusiko dira: Aralar mendizerren parte bat eta Txindoki.

Foru Aldundiak 600.000 euroko diru laguntza emango du honetarako; Udalak finantzatzeko du gainerakoa.

Aurreikusten da azpiegitura berri honetako obrak guztaiz 12 hilabete irautea. Obra honekin orain arte ez zituzten hainbat zerbitzu izango dituzte herritarrek.

E Elkarrizketa

LEIRE BARAIBAR » Arraunlaria



Getaria-Tolosako arraunlariak Getarian egindako omenaldian. Leire Baraibar behean, ezkerretik bigarrena. HITZA

«Getarian portutik udaletxera kalejiran igo ginen banderak astinduz»

Areso » Asteburu oparota izan da Getaria-Tolosa taldearentzat. Larunbatean Donostian eta igandean Zumaian, bi bandera irabazi zituzten. Bertan zegoen Leire Baraibar.

ASIERIMAZ

Lehendabizi Aresotik Oriora joan zen arraun egitera Leire Baraibar (Areso, 1979). Duela bost urte herria utzi eta Zumaian jarri zen bizitzeko. Itsas ertzean bizi arren arraun mundua utzirik zuten Baraibarrek. Iaz ordea dena aldatu zitzaion.

Noiz hasi zinen arraunean?

2000. urtean hasin nintzen etabi urtez Orion ibili nintzen. Gero batzuk lan kontuak eta besteek ikasketak zitzuztela medio, taldekide guztiok arrauna utzi egin genuen. Iaz berriz, Kontxako istoriarekin, berriro deitu egin zidaten. Gure taldean oriotar bat zegoen, nitaz akordatu zen eta deitu egin zidan, jende bila zebiltzala esanez.

Kontxaren itzalean itzuli zinen beraz arraun mundura.

Hori da. Kontxaren aitzakian hasi nintzen berriro arraunean, udara horretan. Iaz di-batean antolatuta zuten dena: emakumeentzat Kontxako Bandera antolatu behar dugu eta bi hilabete edukitu nintuen entrenatzeko. Tartean Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketetan hartu nuen parte.

Areson bizi zinela hasi zinen arraunean. Nondik suertatu zitzaizun aukera hori?

Urte haietan Orion Gorritiko arraunlari bat zebilen, Aitor Dorronsoro, orain Castron dagoena. Bera etorri zitzaidan, kirol hau gustuko nuen zergaitik Orion ez nintzen hasten esanaz. Hasera batean aukli mugikorrean ibiltzeko asmoarekin joan nintzen baina Oriora iristean, batelerako neska bat behar zutela esan zidaten eta han jarri ninduten.

Orain Getariako klubarekin ari zara arraunean.

Iaz deitu zidatenean Getariarekin egin nuen fitxa eta hantxe gelditzea erabaki nuen.

Traineruan puntan ibiltzen zara. Ziabogean arraun txikiarekin. Ezusteren bat hartu al duzu inoiz?

Eskapadak eduki ditut: ia ia uretara erori eta antzekoak. Puntua hartzea da kontua. Azken finean duela gutxi hasi naiz ikasten eta ez dut puntu garbi bat hartu oraindik. Zaila da azaltzea, nolabait indarra eta teknika behar dira puntu bat hartu eta ez mugitzeko.

Asteburuan bi bandera irabazi ditu Getaria-Tolosak.

Traineruetan oraindik Liga eta Gipuzkoako zein Euskadiko Txapelketak ez dira iritsi. Haserako estropadak dira eta nola gauden eta aurrerariak nola dauden ikusteko balio dute. Lehen asteburuan Donostian irabazi genuen. Bertan zumaia, Arkotekoak eta Getaria-Tolosa geunden. Igandean, Zumaian, hiru talde hauetaz gain, bizkaitarrak aritu ziren. Ez genekien nola egongo ziren eta pixka bat ikusi genuen; 17 segundo atera genizkien. Baina oraindik ezin daiteke ondorio handiegirik atera. Es-

trapada bakoitza desberdina da eta poliki joan behar da.

Batez ere Astirelloko neskak oraindik aukli mugikorrean dabiltzala kontuan hartzen baldin bada, ezta?

Hori da. 7 aldaketa egiteko aukera daukate eta hori asko da. Bizkaian ere batzuk mugikorrean dabilta Sevillan, Espainiako Txapelketan. **Banderak irabazi ondoren ongietorria egin zizueten Getarian.** Portutik Udaletxeraino dagoen bi-dea kalejiran egin genuen. Neska bakoitza banan banan joan ginen bandera hastinduz. Gero udaletxera igo ginen eta balkoian berriro hastindu genituen banderak. Politai izan zen. Paseo guztian zehar herriko jendea zegoen eta txaloka, zorionak eta animoak ematen egon ziren. Oso polita izan zen.

Kontxa al daukazu begiz jota?

Noski. Lehengo urtean azkenean ez nuen ateratzeko aukera eduki. Bi hilabetetan aritu nintzen entrenatzen eta besteak urte guztian. Hobeto zeuden prestatuta. Baina aurtien ea zortea dudan eta hor sartzen nauten, ikusiko da.

Bizi guztian gogoratuko duzun unea izango litzateke.

Lehengo urtean ere hor egon nintzen animatzen, saltzan eta gustura. Oso polita izaten da uretatik ateratzeko une hori. Jendea gainera etortzen da zorionak eta abar emanaz. Kontxa desberdina da. Oso polita izaten da.

Aurtien barnetik bizitzeko esperantza edukiko duzu ezta?

Aurtien bai. Ontzia bezala. Gure ontziak Esperantza izena du eta horri eusten diot.

G Gutunak

Ibarrako azoka eta euskara

Ibarrako Udalak, harrigarria egiten bazaigu ere, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko udal-ordenantza bat onartu zuen duela urte batzuk. Denok pentsatuko duzuen moduan, bertan aurreikusitako puntu asko dira bete-tzen ez direnak, euskaldunon eskubideak behin eta berriz urratzen baititu udal honek: udal korporazioari begiradaxo bat bota beste-rik ez dago hori horrela dela baieztatzeko.

Euskararen normalizaziorako udal-ordenantzaren hamaika atal aipagarriak badira ere, oraingoan honako hauek ekarri nahi genituzke gogora:

«28.1 artikulua (udalaren helburuei dagokionean): *zabalpen funtzionala: euskara gizarte-sektore guztietara (lan mundua, zerbitzuak, aisialdia...) zabal dadin planik bideratzea erabilera-esparruak handitu eta zabaltuz.*

Lehen xedapen gehigarria: Ibarrako Udalak sortu edo eta bultzatzen dituen programa guztietan, hizkuntza normalizaziozko ikuspegi kontuan hartu beharko da eta Udaleko Euskara-Zerbitzua izango da, betiere Ordenantza honen eta indarrean dagoen araudijuridikoaren ildotik, hizkuntza normalizaziozko ikuspegiaren presentzia bermada inforamtuko duena, udal-zerbitzu eta departamentu guztietan txosten hartzea dagokion udal-or-

ganoak hartzen dituen erabakiei kalterik egingabe.

Bigarren xedapen gehigarria: Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek ere, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin behar dituzte».

Hor irakurritakoa indarrean egonik 39/2009 Alkate Dekretua onartu berri dute, Ibarran Astero-ko Azoka bat antolatzeari buruzkoa. Euskarari dagokionez beti-koa, gauzak berririk ez, berriz ere aipatu udal-ordenantza indarrean dagoela «ahaztu» zaie. Ez dio euskarari aipamen txikienerik ere egiten, udalaren «helburua» euskara gizarte-sektore guztietara zabaltzeko planak egitea denean, udalak sortu edota bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntza normalizaziozko ikuspegi kontuan hartu behar dutenean.

Ibarrako azokak ere ez al ditu bermatu behar euskaldunon eskubideak? Ezetz dirudi, dirudienez udal korporazioaren eskubide propioak besterik ez ditu bermatu behar. Izan ere, azokan jar daitekeen fruta eta barazkien postu bakarra Ibarrako PNV alderdiko zinegotzi den Victoria Rodriguezena da (erdalduna), jar daitekeen oliba eta fruitu lehorren postu bakarra zinegotzi honen koinatarena da eta bere alabak ere badu jantzi postu bat.

Ezal du zer pentsaturik ematen?

Ibarrako Hautetsi Independentistak.

Herri Arteko finalera doan autobusean joateko azken eguna

A. IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Pilota Txapelketaren finala hilaren 5ean, etzi, jokatu da Iruñeko Labrit pilotalekuan. Leitzak etxeko taldearen aurka jokatu du bertan 09:30etik aurrera.

Finala ikustera joateko Aurrera KEK autobusa antolatu du, dohai-rik gainera. Bertan izena emateko

azken eguna gaurkoa izango da. Horretarako Maimuredo Astizli-burudendetara joan beharko da.

Horretaz gain, finalaren ostean bazkaria egingo dute eta izena emateko lekuak lehen aipatutako berak dira. Helduek 15 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 10. Telefono zenbaki bat ere jarri dute: 619 60 62 65.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balañarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Aisia

■ **Tolosa.** Udako liburutegia Usabal igerilekuan, asteleheneetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.
■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat Topagunean: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an graffiti, hilaren 15ean filma proiektatuko dute eta 17an merendola eta karaokea.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Udal antzerki tailerreko ikasleen emanaldia 22:30ean Leidor antzokian. *Articulo n. 3* lana eskainiko dute. Antolatzailea: Udal Kultur Batzordea.

Azoka

■ **Irura.** Garagardo Azokaren irekiera 19:00etan. 01:00ak arte egongo da zabalik. Gazteen azoka gaua izango da gaur. Antolatzaileak: Ikastola eta Udala.

Deialdiak

■ **Tolosa.** TAKek arraun ikastaroak antolatatu ditu hiru hamabostalditan: bi uztailaren eta bat abuztuaren. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

Irteerak

■ **Tolosa.** Pirinioetara irteera antolatatu du Alpino Uzturre elkarteak uztailaren 4 eta 5erako, Ardiden (2.988 m) eta Bernat Barrau (2.793 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).
■ **Tolosa.** Udagazteko irteerak: hilaren 9an Donostiako Santa Klara

ra irlara, hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura, hilaren 18an egun pasa Mutrikun eta Spraykada graffiti festan parte hartu eta hilaren 22an Lekuenerriko kirol abentura parkea. Izen-ematea, Topagunean (Kultur Etxea).

■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatatu du Harizpe jubilatuek arteak. Izen-ematea, elkartearen (pentsio osoa 257 eta 262 euro).

■ **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñako San Fermin jaietara irteera antolatatu du Harizpe jubilatuek arteak, Blanca de Navarra hotelean bazkalduz. Izen-ematea, elkartearen (33 eta 30 euro) Antolatzailea: Harizpe jubilatuek arteak.

■ **Tolosa.** Hilaren 12rako eskalada irteera antolatatu dute Oargik eta Topaguneak. Informazioa: www.zazpitantriangulon.com webgunean. Antolatzailea: Oargi mendien elkarte eta Topagunea.

Kirola

■ **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika uztailaren 12an 10:30ean (7 km). Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan. Antolatzailea: Santamaña elkarte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C, Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Txakurren gorotzei konponbidea

ANOETA ■ Inori ez zaio gustatzen herriko kaleetan zehar txakur gorotzekin topatzea. Horregatik, eta arazo horrek etengabe jasotzen diren kezak direla eta, Anoetako Udalak 15 kartel jarri ditu herriko hainbat lorategitan arazo horretaz ohartzeko txakur jabeak, eta ohitzeko beren txakurren gorotzak jasotzen, eta ez lorategietan uzten. Udalak gogoratu nahi du udal bulegoetan, liburutegietan eta kiroldegietan doan daudela eskuragarri

gorotzak biltzeko poltsatxo txikiak, eta animatzen dituzte txakurren jabeak horiek erabiltzera. Bestalde, Udalak kaleko katuen inguruan ere oharra kaleratu du. Hain justu,

kaleko katuei jana ez emateko eskatzen die bizilagunei, hainbat tokitan katu gehiegi daudelako, eta zikinkeria sortzeaz gain gaixotasunak ere zabal ditzaketelako. HITZA

A Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

1. Euskal Herriko ziboturista itzulia
Prueba ciclista del País Vasco
Randonnée cyclotouriste de Pays Basque
MAULE (Zuberoa) Euskal Herria

IRATIKO TOURRA - martxa ziboturista -
2009
Euzko
Jaiak
Jaiak

IZEN-EMATEA/INSCRIPCIÓN/ PAR CHÈQUE
www.iratikotourra.com
www.herrikrossa.com
www.sam.mauleon.com

Sponsorrak:
hitza
osait
SEM

IRURAKO Garagardo 00900
7

Uztailak 3, 4 eta 5
(18:00-01:00)

Irurako Ikastola